

Nor zara

Gorabera au ezerezetik asi zan. Goiz baten eskutitz bakar bat etxatant eldu. Ioandako urte askotan beste orrenbeste ez ikusirik arrituta ta asarre nengoan.

Eguneroko eskutitzok ardura andiz artzen nebazan. Gure bizitzan aurretiaz ezta kiguzan zeretatik bat auxe bai-da. Orrez gaiñera erantzun astun bat itxarokeran egun bakotxak artegatasun berezi bat ekarten eustalako.

Alperriko maitasun bat eskatzen eusten urriñeko emakumeenak izango ziran batzu. Besteak euren bizitzan neugazko artuemonetan asi gura dabenak. Batzuetan an etozan aztualdi luze baten ostean itxartu diran adiskideak, oneik azkenengo urteetan izandako gurari, amets eta damutasunak agerian eustezan. Beste batzu ostera sasi-igarle eta sasi-iakintsuenak; ondo esakerak batzuetan onartu, besteetan zapaldu egin bear izaten nebazan. Ba-egozan gizon saldu-erosleen eskutitzak, baita irugarren mailako senideenak be.

Nik neuk guzti guztiak irakurten nebazan gurari biziz.

Aldi aretan, nire atsegiñen artean andien bat, nire eskutitz txortan oparoa aztertzea zan.

Ta goiz aretan eskutitzik ez izparringirik eneban artu! Zer txarra egin eustan orrek, laburra izan arren. Alan iazo bearko ebala gogoratuaz, urrengo egunean ugartuta etorriko iatazanen poztasunera iarri nintzan.

Burua beste zer batera iarteko, etxetik urten neban. Bizi nintzan uria, atzokoa zan gaur be. Kale er-tzetan lengo etxeak, sal-erostokie-tan barriz, lengo saltzailleak batari ta besteari betikoak saltzen. Aspaldian idatzita egozan oarrak aldatu barik egozan. Kaletik zear iozan gurdiak, beti ikusirikoak ziran. Batera ta bestera ebiltzan uritarrak be iazkera bardina eukien. Ainbeste zer bardin ikusiaz, morrillopean dagoanaren irudia bu-curatu iatan. Baiña bururakizun or beingoan galdu neban, eta or-guntza itxartzera bainiñcan lez, ka-lara ordu aretan zertara etorria nintzan enekian. Barriro etxera-izea erabagi neban eta kale baten sartzeko, enparantza batetik beste-